

Anodino
Teatroa

ZERURA

ERORIA

Kriston eromena



FLORENTINO BADIOLA

AITOR FERNANDINO

AIORA SEDANO

PABLO IBARLUZEAK zuzendutako komedia

Anodino Teatroa



Definizioa:

1. *Sustantibakoa, garrantzirik gabekoa.*
2. *Mina arindu edo kentzen duena.*

Aitor Fernandino, Florentino Badiola eta **Aiora Sedano** aktore eta sortzaileek, hainbat urtetan konpainia ezberdinetan lan egin eta gero, beraien bideak elkartu dituzte **Anodino Teatroa** sortzeko.

Nor gara gu?

Florentino Badiola (Donostia 1974), 1999an hasi zen aktore lanetan, eta Pasaiaiko Interruptus konpainiarekin egin zituen lehenengo urratsak. Ander Lipus, Maite Agirre, Leo Bassi, Pep Vila eta Cesar Sarachu antzezleen eta Legaleón-T eta Oihulari Klown konpainien eskutik jaso zuen prestakuntza, besteak beste. Gerora, Oihulari Klown konpainian aritu zen aktore. KABIA antzerki laborategiaren sortzaileetakoa izan zen, eta Hortzmuga zein Atx konpainiekin ere lan egin du.

Aiora Sedano (Bilbao 1982), Arte performatiboetan (Leeds Metropolitan University) eta Arte Dramatikoan (BAI) lizentziatua. Aristides Vargas, Chapitó eta Lavi e Belekin landu du bere prestakuntza, eta Idoia Zabaleta zein Odin Teatrotekin dantza. 2003tik hona hainbat konpainiarekin aritu da: Kuku-biltxo, Hortzmuga, Zero Teatro, Glu-Glu, Bibote Gorriak eta Eidabe, aipagarrienak. Sortzaile eta interprete da Aiora hainbat arlotan: antzerkia, dantza, musika... eta baita, bideo-sorkuntzan ere. Plataforma Tiranteren sortzaileetakoa dugu.



Aitor Fernandino (Donostia 1980), Arte Dramatikoan lizentziatu zen Getxoko antzerki eskolan 2002. urtean, eta, harrezkero, etengabe ari da bere burua janzten eta prestatzen dela zinemagintza, testugintza zein clown ikasketak eginez. Antzerkigintzako diziplina desberdinetan sakontzeko aukera izan du lan egin duen konpainiekin: Ados Teatroa (Decamerón), Deabru Beltzak (Les tambeurs de feu), Maskarada (Arkimedesen Printzipioa), Txalo (Pottola) edo Pabellón 6ko Antzerki Laborategian (Godot).

Pablo Ibarluzea Garmilla (1980) Aktore, zuzendari eta pedagogo ospetsua da, ezaguna batez ere, antzerki fisikoan eta Klown teknikan. Mascara Neutra, Klown eta Mugimendu irakaslea izan da Pariseko l'École Philippe Gaulier. Honi buruz kurtso ezberdinak eman ditu herrialde ezberdinetan: Frantzia, Ingalaterra, Irlanda, Noruega, Suecia, Brasil edo Argentina

Mikel Fernandino (Donostia 1984), Arte Ederretan eta Antropologian lizentziatua. Idazle bezain antzerkigile. Trino antzerki konpainiako kide izanik hainbat lan idatzi ditu, eta horien artean azpimarratzekoa da Amor breve en un acto vandálico. Lan horrekin sari ugari irabazi du, Alex Angulo saria, besteak beste. Colectivo literario Gilles de Rai taldearen sortzaileetakoa eta gidoilaria. Antes todo esto era campo literatur aldizkariaren sortzaile, argitaratzaile eta idazle ere bada. La gravedad del asunto diskoa grabatu du Pezpsiquiatra musika taldeko kide eta konpositore izanik.

ZERURA ERORIA

SINOPSISIA

Zerbait al dago hil ostean?

Zerbait badago, nora goaz? Gora? Behera?

Bizitutakoaren arabera erabakiko al da norabidea?

Ezinbestekoa da bizitza produktiboa eramatea hildakoekin joan ahal izateko?

Nola deitzen dira hilda zaudenean dituzun bizipenak?

Hildakoen bizipenak?

Bizi penak? Hil penak?

Bizitzaldi ezgauza bezain zozo baten ondoren, Armandok zeruan atsedean hartzea besterik ez zuen nahi. Baina kapitalismoaren atzaparkadak eta krisi ekonomikoa zeruraino iritsi dira, eta ez zuen espero bere produktibitate eskasak atsedean hartzea galaraziko zionik. Sartzerik izango al du?

Eta zuk, etxekolan guztiak eginda dituzu arimen mundura bidaiatzeko?

ZERURA ERORIA komedia zoroa da, ganberroa eta lotsabakoa. Barre algarak eragitea da lan honen funtsa, oinarria eta helburua.

Publikoaren konplizitatea bilatzen dugu Armandoren gorabeherak kontatzen ditugun bitartean, hain zuzen ere clown eta buffoi teknikak erabili ditugu Zerura Eroria sortze-prozesuan. Eta horretarako teknika hauetan aditua den Pablo Ibarluzea zuzendari bezela izan dugu.

Mikel Fernandino-ren textu zoragarri batetik hasita, muntai-joku bat izango balitz bezela, zatitu, ordenatu, moztu, gehitu eta birmontatu egin genuen. Honetarako Iñaki Ziarrustaren laguntza paregabea izan genuen eta euskerazko moldaketaz gain bere ikutua eman zion. Azkenik Enriqueta Vega-ren jantzi diseinu zoroa eta itzela gehitu genion eta Javi Kandelaren argiztapena.

Espazio anitzetara moldatzen den ikuskizuna da, hau da, leku ertain eta handietara baina baita ere espazio txikietan egin daiteke. Izan ere, aktoreen lanean oinarritzen den obra da eta eszenografia simple bat lagungarri bihurtzen du.

Erritmo bizia ezarri diogu antzezlanari eta halaber pertsonai ezberdinen sartu-irteerak, eromen hau paregabea izan dadin.

Komedia freskoa eta burugabea sortzea izan zen **ANODINO TEATROA** taldearen helburuetariko bat. Eta lortu dugula uste dugu baina ez dugu guk bakarrik esaten. Ikuslegoaren harrerak eta kritikaren hitzek horrela diote.

PERTSONAIAK



ARMANDO

Bizitza zozo baten ondoren Armando hil egin da. Bere behin behineko atsedenaldia besterik ez du nahi, baina konpondu gabeko arazoak konpondu beharko ditu lehendabizi:

“Metastasia izan zen nere bizitzaren momenturik hunkigarriena. Atera kontuak...”

KARONTE

“Ni Karonte naiz, Aqueronte ibaiko txalupa zaindaria eta nire ardura hildakoak azpimundura eramatea da txanpon baten truke”

Baina ezin, Karontek ez du aurkitzen Armandorentzat lekua Zeruan. Akats bat omen dago, Virgiliok konponduko ote du?



VIRGILIO

*“Ongi etorri ta ongi heldua
Aupa urte askotarako
Ni neu Virgilio jauna naukazu
eta hauxe purgatorio”*

Purgatorioaren zaindaria, bertsolari sutsua. Armandori lagunduko dio bere konpondu gabeko kontuak argitzen bere bizitzatik bidai bat egiten.

BEATRIZ

Armandoren neska-ohia. Armando hil aurretik gauza garrantzitsu bat zuen esateko:

“Badakit zuretzat ez dela unerik errazena, baina ulertu behar duzu. Esaten dut sasoia dela beste batzuekin egoteko.”

Baina badirudi Armandok ez zuela tutik ere ulertu.





JUANJOSE LUCIFER

Jaungoikoak infernua erosi zuen eta Juanjose Lucifer ezer gabe geratu zen.

Orain Zeruko zerbitzari fidela da eta gure protagonista eramango du Jaungoikoaren bulegora.

“Juangi da...la hostia...super ondo portatzen da nirekin...ematen dizkit kurrilloak...”


JAUNGOIKOA

Jaungoiko eroa, bipolarra eta usteldua. Zerua hondoratzen ari da eta ez da begira geratuko. Jaungoikoa da edo berak esaten duen bezela:

“Hamaika izen izan ditugu: Jauna, Arima, Buda, Ala, Hutsa, Telecincoko aurkezlea, energia, gida-argia, osoa, barneko nia, barruan daramagun ume hori... Abestiarena... “Gure aita zeruetan zeranaaaa... Baina bai, Jaungoikoa naiz, hezur eta haragi!”



Pertsonaia hauetaz aparte, **Kalkutako Maria Teresa, Ama Birjina eta Heroitza** izango ditugu beste batzuen artean.



KRITIKAK

...Anodino Teatroa deitzen da aurten munduratu den formazioa, eta interesgarria izan daiteke beren lehen lan honen esku-programan dakarrena jakitea, bertan anodino izenondoaren definizioa agertzen baita: 1. Sustantzi bakoa, garrantzirik gabekoa; 2. Mina arindu edo kentzen duena. Hain zuzen ere, bi ezaugarri horiek ditu talde berriaren proposamen eszenikoak, eta beste batzuk ere bai, hala nola ikonoklasta, ganberroa eta konplexurik gabea izatea...

...Egoerak eta solasaldiak bizitasun handiz gauzatu dira, aspertzeko inolako aukerarik eman gabe, eta absurduaren garapenean hainbat instituzioren gaineko satira dibertigarriak agertu dira, ikusleон barre-algara ugariak lekuko. Ongi etorria izan dadila Anodino taldea eta ongi etorria bere freskotasuna, bien artean umore deskontrolatuaren pieza jarriko dutelako euskarazko antzerkiaren eraikuntzan.

Agus Perez. Berria

... (Zerura Eroria) Inteligentea eta bihurria izateaz gain, originaltasun handikoa iruditu zait obraren i kuspegia. Atsedetik gabe egingo du barre zuzentasun politikorik eza maite duen ikusleak. Zalantzarik gabe, obra honen mailari eusten badio, Anodino Teatroa oso kontuan hartzekoa izango da.

Jaime Valverde. Gara



Fitxa Artistikoa

Aktoreak:

Florentino Badiola
Aiora Sedano
Aitor Fernandino

Testua:

Mikel Fernandino

Zuzendaritza:

Pablo Ibarluzea

Euskerara itzulpena:

Iñaki Ziarrusta

Jantziak:

Enriqueta Vega

Kartelaren diseinua:

Estibaliz Valiño



Fitxa Teknikoa

ESPAZIOA:

Aforo italiar erara eta fondo oihala
6m zabalera x 4 sakonera eta 4m altuera (gutxienekoa)

ARGINDARRA

Antzokia

Antzokiko Soinu Ekipoa
22 PC
20 PAR64
10 rekorte
24 Kanal Dimmer.

OHARRA: Ikuskizuna dotazio tekniko txikiagoarekin ere egin daiteke.

LANALDIA

4 ordu montatzeko
Ordu 1 desmontatzeko

ALDAGELAK ETA BESTELAKOAK

3 aktoreentzat aldagela.
Furgoneta aparkatzeko lekua.



Kontratazioa eta informazio gehiago

Telefonia
677 241 414
(Aitor)

Helbide elektronikoa
anodinodeatroa@gmail.com

